

DATUAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

Tratamenduaren izena	KOLONEKO MINBIZIAREN PROGRAMA
Tratamenduaren arduraduna eta harremanetarako datuak	<p>Osakidetza – Euskal osasun-zerbitzua / Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza</p> <ul style="list-style-type: none"> – Araba kalea, 45 - 01006 Vitoria-Gasteiz <p>Eusko Jaurlaritzako Datuen Babeserako ordezkaria:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz – DPD-DBO@euskadi.eus
Tratamenduaren xedea	Kolon eta ondesteko minbizia prebenitzeko programaren koordinazioa; programako partaidetzen zitazioak egitea; informazio fluxuak kudeatzea eta programaren emaitzak ebaluatzea. Programaren zerrenda eta adierazleen tratamendu estatistikoa, prozesuen kalitatea zein emaitzak eta inpaktua monitorizatzeko eta ebaluatzeko. Osasun publikoko prebentzio-neurri horren eraginkortasuna eta kostu-eraginkortasun ebaluatzea, osasun-agintaritzaren eskutik.
Datuak gordetzeko epea	30 urte.
Tratamenduaren oinarri juridikoa	Legezko betebeharrak betetzea Estatuko Osasun Sistemaren Kohesioari eta Kalitateari buruzko legearen (maiatzaren 28ko 16/2003) eta Osasun Publikoari buruzko Lege Orokorren (urriaren 4ko 33/2011) arabera.
Hartzaileak	Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.
Eskubideak gauzatzea	<p>Interesdunak datuetara sartzeko eta horiek zuzendu edo ezabatzeko, eta tratamendua mugatzeko edo horri uko egiteko eskubideak gauzatu ahal izango ditu idatzi bat zuzenduta Osakidetza - Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza, Araba kalea 45 - 01006 Vitoria-Gasteiz helbidera, NANaren edo beste nortasun-dokumentu baliokide baten kopia erantsita.</p> <p>Interesdunak, halaber, eskubidea du Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean erreklamazioa aurkezteko.</p>
Datuen jatorria eta kategoriak	<p>Datuak interesdunak berak, EUSTATEk, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak eta Osasun Ministerioak (INDEF: Heriotzen Indize Nazionala) eman dituzte.</p> <p>Identifikazio-datuak.</p>